

I. ERANSKINA

Zenbait administrari plaza eta dagozkien lanpostuak betetzeko LEHIAKETA FASEAN MEREZIMENDUAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Zenbait administrari plaza eta dagozkien lanpostuak betetzeko oinarri espezifikoen 6.4. atalaren arabera, "merezimenduen lehiaketa fasean, 36 puntu eskuratu ahalko dira gehienez ere". Bada, atal horren beraren azken paragrafoarekin bat etorritz [GAO, 2021eko otsailaren 2koa], **merezimenduak** alegatu eta dokumentu bidez egiaztatzeko epea hasi aurretik, kalifikazio epaimahaiak **irizpide orokor hauek** finkatu ditu aukeraketa prozesuaren barruan haiek **baloratzeko**:

I. Esperientzia profesionala (21 puntu gehienez ere)

Deialdiaren oinarri espezifikoen 6.4. atalak aipatzen dituen hiru esperientzia profesional motei dagokien esperientzia profesionala bakarrik alegatu ahalko da. Horrenbestez, **honako hauek ez dira hartuko kontuan**:

- Toki Administrazioan (toki entitateetan edo dagokien administrazio instituzionalean, zuzenbide publikoko mendeko erakundeak barne) Administrazio Orokorreko Eskalako administrari edo laguntzaileen azpieskalatik kanpoko lanpostuetan emandako zerbitzuak, hala nola mendekoen azpieskalara adskribatutako funtzio teknikoak eta lanpostuak betetzen emandakoak eta Administrazio Bereziko Eskalako lanpostuetan emandakoak
- Toki Administrazioak ez diren administrazio publikoetan eta dagokien administrazio instituzionalean (tartean, zuzenbide publikoko mendeko erakundeetan) emandako zerbitzuak, salbu eta administrarien kidegoko lanpostuetan eman badira
- Zuzenbide pribatuko administrazio publikoen mendeko erakundeetan emandako zerbitzuak eta, bereziki, partaideen artean administrazio publikoak edo sektore publikoko administrazioak dituzten merkataritza sozietateetan emandakoak, administrazioak partaideak osorik zein partez izan
- Sektore pribatuko esperientzia profesionala, zer funtzio bete diren gorabehera
- Behin-behineko lanpostuetan emandako zerbitzuak, zer administrazio publikotan eman diren eta bete diren funtzioek zer eduki zuten gorabehera, eta bekak eta trebakuntza praktikak

II. Prestakuntza (11 puntu gehienez ere)

a) "Administrazio Kudeaketako teknikari **titulu ofiziala**, Administrazio eta Finantzetako goi mailako teknikari **titulu ofiziala** edo Zuzendaritzan Laguntzeko goi mailako teknikari **titulu ofiziala** edo, deialdi honetan parte hartzeko bide ematen duenaren gehigarri bada betiere, indarreko legediak ondorio profesionaletarako baliokidetzat hartzen duen beste edozein" bakarrik alegatu ahalko dira, eta **2 puntu** emango dira. Horrenbestez, titulu hauek **inolaz ere ez dira hartuko kontuan**:

- Diploma, lizentzia, ingeniari-tza eta unibertsitate mailako titulu baliokideak, unibertsitate mailako graduak barne
- Nolanahiko graduondoko ofizialak eta unibertsitateen berezko tituluak

b) **Prestakuntza jarduerak**, ezinbestean, **"administrazio publikoek antolatu edo homologatutako 5 ordutik gorako"** prestakuntza jarduera edo ikastaroak" izan beharko dute, eta **gehienez ere 5 puntu** emango dira. Alegatzen diren jardueren gaiak "deitutako plazen funtzioekin zuzeneko lotura" duela eta "izangaien maila profesionala hobetzea ekarri" duela jotzeko, epaimahaiaren iritziz, jardueren gaiak hauetako bat izan beharko du ezinbestean:

- Administrazio publikoen araubide juridikoa eta funtzionamendu eta antolamendu araubidea
- Toki araubidea
- Administrazio prozedura erkidea eta prozedura bereziak (zigor prozedura, ondarezko erantzukizunaren gaineko prozedura, etab.)
- Herritarrei arreta emateko teknika eta prozedurak
- Sektore publikoko kontratuak
- Toki ogasunak eta aurrekontu araubidea
- Langileen kudeaketa administrazio publikoetan eta administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasun araubidea
- Kalifikazio epaimahaiaren iritziz deialdiaren barruko plazen berezko edukien antza duten gaien buruzko ikastaroak.

Deialdiaren barruko plazen funtzioekin zuzeneko lotura ez duten gaien buruzko beste edozein prestakuntza jarduera **ez da hartuko kontuan**; bereziki, bulegotika eta informatika gaien buruzkoa bada edo, nahiz eta oro har edozein jarduera profesionaletarako probetxuzkoak izan daitezkeen gai generikoen buruzkoa izan, deialdiaren barruko plaza eta lanpostuak betetzeko hobekuntza espezifikorik ez badakar.

Titulu ofizial bat eskuratzeko ikasketen parte bat egin izana (balizko ordu edo kreditu baliokideen kalkulua) ez da hartuko kontuan.

c) **IT txartelak (4 puntu gehienez ere)**

Deialdiaren oinarri espezifikoek berariaz aipatzen dituzten IT txartelak bakarrik baloratuko dira: bertsio zaharragoetako IT txartelak eta bulegotika edo informatika ezaupideak egiaztatzeke gainerako ziurtagiriak ez dira hartuko kontuan.

Ziurtagiri informatikoak eta haien bertsioak webgune honek xedatzen duenari jarraikiz baloratuko dira: <https://www.it-txartela.net/KZ/usuario/Estaticos.do?req=certif>

III. Hizkuntzen ezagutza (4 puntu gehienez ere)

Ingelesaren eta/edo frantsesaren ezagutza egiaztatzeke titulu ofizialak bakarrik baloratuko dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekiko baliokidetza ofizialaren arabera.

Bi hizkuntza horietan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2, C1 edo C2 mailakoaren baliokidea den titulu ofizial bat eskuratu izana ekarri duten prestakuntza jarduerak hartuko dira kontuan: ingelesa edo frantsesa ez diren beste hizkuntza batzuen ezagutza egiaztatzeke titulu ofizialak ez dira hartuko kontuan.

Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeke arau orokorrak

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko zirkunstantziei dagozkien merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan. Alde horretatik, 2021eko martxoaren 18an bukatu zen eskabideak aurkezteko epea, eta, hortaz, egun horren ondorengoak eta egun horren ondoren egiaztatzen direnak ez dira hartuko kontuan.

Lehiaketa fasean **alegaten diren merezimenduak behar bezala egiaztatzeke**, hautagaien esku jartzen den eredu normalizatua edo berariaz prestatzen den formulario elektronikoa bete beharko da, alegaten diren merezimenduak banan-banan zerrendatuta.

Beti ere, ezinbestean, 7.4.7. oinarri orokorrak alegatzen den merezimendu bakoitza egiaztatzeke moduari buruz dioenari jarraiki beharko zaio.